## GAURKO FILMEAK

Filme asko dago ikusgai gaurkoan, baina gutxi ikusteko modukoak. Rowland V. Leek piraten titulu politta ekarriko du goizeko lehen orduarako, eta Jacques Tourneurrek, maixulan «beltza» gauerdirako. Bitartean, ordea, kaxkarkeria franko. 'El día más largo', luzea, luzea eta luzea da; 'Clouseau inspektorea-k', bigarren zatiei buruzko atsotitza onetsiko du; 'Mort d'un commis voyageur', Arthur Millerren obran oinarritutako filme artifiziala, teatralegia eta ganorarik gabekoa da, gauza pizgarri soila John Malkovich ikustea bait da (Dustin Hoffman pasa egin zen berriro); 'Le lendemain du crime', poliziako ustela da, Jeff Bridges eta Jane Fondaren erantzukin zuzenarekin; 'Un Quijote sin Mancha', Mario Moreno 'Cantinflas-i' eskainitako zikloaren estreineko barrabaskeria; 'Entre salvajes', Jean Jacques Beneixen basakeria bat, Isabelle Pascoren ipurdia propio erakusteko egina; eta 'Les amoreux', Mario Bologniniren aurrenetako lan ttikia.

# Jacques Tourneurren erromantizismoa eta fatalitatea

ANDRES GOSTIN

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 10.25 | TVE2 | ○○○ | EL CAPITAN KIDD | 1945 | Rowland V. Lee | 90 m |
| 12.00 | T5 | ○○ | BAILE IMPERIAL | 1956 | Franz Antel | 95 m |
| 13.15 | A3 | ○○ | COWBOY | 1983 | Jerry Jameson | 89 m |
| 14.55 | ETB1 | ○○ | CLOUSEAU INSPEKTOREA | 1968 | Bud Yorkin | 90 m |
| 15.30 | T5 | ○○ | EL DIA MAS LARGO | 1962 | Annakin, Marton | 170 m |
| 16.00 | TVE1 | ○ | EL SEÑOR ESTA SERVIDO | 1975 | Sinesio Isla | 81 m |
| 17.00 | C+(e) | ○○ | EL AGRESOR | 1988 | Noel Black | 90 m |
| 18.18 | A3 | ○○ | SAFARI EN MALASIA | 1963 | Phil Karlson | 98 m |
| 20.30 | C+(f) | ○○ | MORT D'UN COMMIS VOYAGEUR | 1985 | V. Schlondorff | 130 m |
| 20.40 | TF1 | ○○ | LES BIDASSES S'EN VONT EN GUERRE | 1974 | Claude Zidi | 90 m |
| 20.50 | L5 | ○○ | LE LENDEMAIN DU CRIME | 1986 | Sidney Lumet | 105 m |
| 21.00 | ETB2 | ○ | UN QUIJOTE SIN MANCHA | 1969 | Miguel M. Moreno | 160 m |
| 22.00 | C+(e) | ○○ | ENTRE SALVAJES | 1988 | Jean-J. Beineix | 115 m |
| 22.05 | TVE1 | ○ | HOWARD, UN NUEVO HEROE | 1986 | Willard Huyck | 105 m |
| 22.25 | TF1 | ○○ | LE FILS DE CAROLINE CHERIE | 1954 | Jean Devaivre | 110 m |
| 22.35 | M6 | ○ | LES FANTASIES AMOUREUSES DE SIEG. | 1970 | Adrian Hoven | 90 m |
| 22.45 | FR3 | ○○ | LES AMOREUX | 1955 | Mauro Bolognini | 85 m |
| 23.00 | A3 | ○○ | VIENTO ASESINO | 1987 | Nico Mastorakis | 92 m |
| 00.00 | TVE2 | ○○○○ | RETORNO AL PASADO | 1947 | Jacques Tourneur | 97 m |

○ *TXARRA* ○○ *ESKASA* ○○○ *BALEKOA* ○○○○ *ONA* ○○○○○ *BIKAINA*

### EL CAPITAN KIDD

**(Captain Kidd)**
**Zuzendaria:** Rowland V. Lee. **Aktoreak:** Charles Laughton, Randolph Scott, Barbara Britton.

Piraten generoak sortu dituen filme handien artean, mereziko luke lekurik 'El capitán Kiddek', abenturen mundua goitik behera jorratzeaz gain leialtasun eta adiskidetasun istorio zoragarria kontatzen bait du. Ohizko elementuak erabili zituen merezitako onarpenik sekula jaso ez duen Rowland V. Lee zinegile profesionalak. Itsasoa, emakumeak, ustez hilda zeuden etsaiak eta gidoi kuriosoa, baina horrez aparte, aktore koadrila bikaina aukeratu zuen. Eta hauen artean, nola ez, Laughton nabarmendu zen, mozkor baten rolean.

### EL DIA MAS LARGO

**(The longest day)**
**Zuzendariak:** K. Annakin, A. Marton, B. Wicki. **Aktoreak:** John Wayne, Henry Fonda, Robert Mitchum.

Twenty Centhury Fox produkzio etxearen proiektua da Normandiako Lehorreratzearen inguruko superprodukzio erraldoi hau. David Zannuck ekoizlea egoskor jarri zen proiektua aurrera eramateko teman, eta sekula lortu den errepartorik handi/ezagunena bildu zuen. Goian aipatutakoaz gainera, hamaika aktore ezagun ikus daiteke pelikulan. Eta aktore hauek biltzea izan zen produktuaren azierto bakarra, historikoki faltsua, eta kalitate aldetik luzea eta astuna bait da. Lehorreratzearen zenbait eszena, eskoziarren martxa, kanpaidorrean zintzilik geratu zen soldaduaren paraderoa, ikustekoak dira, baina zer da hori hiru orduko produkzio batentzat?

### RETORNO AL PASADO

**(Out of the past)**
**Zuzendaria:** Jacques Tourneur. **Aktoreak:** R. Mitchum, Kirk Douglas, Jane Greer.

Kritikak fabore gutxi eta komunikabideek are kasu gutxiago egin badiote ere, Jacques Tourneur genio ttikia izan da, urteak ezkutuan eman dituen genio berezia. Zinemako genero kasik guztiak menderatu zituen eta bakoitzean arrasto pertsonala utzi. 'Retorno al pasado' bizitzak eragiten duen etsipenari buruzko maixulana da, genero beltzaren klasiko bihurtu den filme lirikoa eta, aldi berean, mingotsa. Mundu ustel baten erretrato mikatza isladatu zuen Tourneurrek, oinazera kondenatuta dagoen unibertso baten alderdi mingarria alegia. Zinegilearen erromantizismoa, lirismoa eta fatalitate guztia gordetzen ditu pelikulak, haren filmeetako misterio eta anbiguetate osoa. Gangster batek, honen diruarekin aldegin duen amoranteak, eta haren laguntzaile izan ondoren, azken honekin maiteminduko den lagunak osatuko duten triangelu fatala da mendekuaren gainean eraikitako pelikula honen protagonista. Maitasunak, traizioak, eta batez ere mendekuak, zipriztinduko dute hirukotearen arteko harremana. Iraganaren zama astunak markatu ditu hiruak eta urte batzuen buruan berriro elkartuko direnean, ezeptizismoa eta samina nagusituko dira topaketan. Mendekua jasan, mendekua egin eta gezurraren amaraunean bizitzera behartuta bait dago, finean, protagonista nagusia. Nagusia eta emakumearen artean harrapatuta dago, eta ihesak, azken ihesak, heriotzaraino eramango ditu. Bestelakorik ez zen posible.

T5



LA 5º MARCHA
Musika saioa
13.45

FR3



SPORTS 3 DIMANCHE
Kirol saioa
14.50

TVE1



LOS FRUITTIS
Marrazki bizidunak
15.35

TVE2



DOCE HOMBRES SIN PIEDAD
Antzerkia
20.15

**LA CINQ 5**

06.30: **Le journal permanent.** 07.15: **Youpi, les vacances.** 11.10: **Tarzan.** 12.05: **Spécial drôles d'histoires.** 12.40: **Météo.** 12.45: **Le journal.** 13.20: **Le club F1.** 16.30: **L'homme qui valait trois milliards.** 17.20: **Kargo.** 18.15: **La parade des héros.** 20.00: **Le journal.** 20.35: **Météo.** 20.40: **Le journal des courses.** 20.50: **«Le lendemain du crime». Filmea.** 22.40: **Nomades.** 23.35: **Top chrono.** 00.25: **Journal de la nuit.** 00.35: **Club du télé achat.** 00.55: **La nuit sur la 5.**

**M6**

06.00: **Boulevard des clips.** 08.15: **Multitop.** 09.15: **Clip champion.** 10.30: **Turbo.** 11.00: **L'île mystérieuse.** 11.50: **Sport 6 première.** 11.55: **Info-consommation.** 12.00: **M6 express.** 12.05: **Mariés, deux enfants.** 12.25: **La météo des plages.** 12.30: **Parole de chien.** 13.00: **Daktari.** 13.50: **O'Hara.** 14.40: **Laredo.** 15.30: **Hit hit hit hourra.** 16.40: **Adventure: spécial patrick Edlinger.** 17.00: **Vic Daniels, flic à los angeles.** 17.20: **L'homme de fer.** 18.10: **Supercopter.** 19.00: **Les routes du paradis.** 19.54: **6 minutes.** 20.00: **Papa schultz.** 20.30: **Sport 6.** 20.40: **Le naufrage des étoiles.** 22.15: **M6 express.** 22.20: **Capital.** 22.35: **«Les fantaisies amoureuses de siegfried». Filmea.** 00.05: **6 minutes.** 00.10: **Sport 6.** 02.00: **Culture pub.** 02.20: **Les caraïbes.** 03.10: **Le mississippi et la musique noire.** 04.00: **Le glaive et la balance.** 04.50: **La côte d'ivoire.** 05.35: **La face cachée de la terre.**

**CANAL+**

07.25: **Canaille peluche.** 08.30: **Les allumés...** 09.00: **«Made in heaven». Filmea.** 10.40: **«Karaté Kid III». Filmea.** 12.30: **Flash info.** 12.35: **Jerry Lewis Show Nº 8.** 13.05: **A la recherche de la plus belle fille du monde.** 13.30: **Décode pas bunny.** 14.30: **Les fables géométriques.** 14.35: **Unété dans les rocheuses.** 15.00: **Tailleur croisé et bas résille.** 16.30: **Volley-Ball.** 17.30: **Coup de foudre.** 18.00: **Les p'tits vélos.** 19.35: **Les superstars du catch.** 20.30: **«Mort dùn commis voyageur». Filmea.** 22.45: **Corrida.** 00.15: **Snooker.** 01.15: **«La tournée du patron». Filmea.**

**TELE 5**

08.00: **Dibujos animados: 'Vicky el Vikingo', 'Soñar con los ojos abiertos', 'Rascal', 'Dártacan y los tres mosqueperros', 'New Kids on the block' eta 'G. I.Joe'.** 10.15: **Pressing catch.** 10.45: **Arco iris.** 11.15: **Coctelera vip.** 12.00: **Matinal de cine: «Baile imperial».** 13:45: **La 5ª marcha.** 15.00: **Humor amarillo.** 15.30: **Cine fiesta bélico: «El día más largo».** 18.30: **Sábados de humor: 'Lasnoches de tal y tal'.** 19.50: **Domingo de cine: «Serpico»,«El amanecer de las furias», «Hunter» eta «El basurero».** 21.30: **Telecomedia: 'Enredos de familia'.** 22.00: **Desde Palma con amor.** 24.10: **Entre hoy y mañana.** 00.40: **Pressing boxeo.** 01.40: **El inspector Derrick: 'Un segundo letargo'.**

**A3**

08.00: **Dibujos animados.** 09.00: **Clasicos familiares.** 10.30: **Salvados por la campana.** 11.00: **Viva la vida.** 12.00: **Noticias.** 12.03: **Peyton Place.** 13.15: **«Cowboy». Filmea.** 15.00: **Noticias.** 15.30: **El principe de Bell Air.** 16.00: **Elvis, el rey del rock.** 16.30: **Caza submarina.** 17.00: **Los gladiadores.** 17.45: **Al sol.** 18.15: **Noticias.** 18.18: **«Safari en Malasia». Filmea.** 20.00: **En el calor de la noche.** 21.00: **Noticias.** 21.30: **Empezar de nuevo.** 22.00: **El gordo.** 23.00: **Noche de lobos. «Viento asesino». Filmea.** 01.00: **Noticias.** 01.15: **Al fin, musica.** 02.15: **Amaiera.**

**CANAL+**

09.25: **Los 40 principales.** 10.25: **«El hombre del zapato rojo». Filmea.** 12.00: **Aventura, aventura.** 12.30: **Spatz.** 13.00: **El gran musical.** 13.55: **Redacción.** 14.05: **La oficina del, fiscal.** 14.30: **Lo + plus.** 15.00: **Pichón, agente secreto.** 15.30: **Real Madrid-Sevilla. Futbola.** 17.00: **«El agresor». Filmea.** 18.30: **«Pesadille en ELM Street V». Filmea.** 20.00: **Redacción.** 20.05: **Hallo Spencer.** 20.30: **Los chicos de Beverly Hills.** 21.00: **Sumo.** 21.30: **Deporte verano.** 22.00: **«Entre salvajes». Filmea.** 00.02: **«Atracción diabólica».** 01.50: **«Jodou, semilla de crisantemo».**

## IRRATIA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Arrate Irratia. | FM 87.7 | Gure Irratia. | FM 89.6 |
| Bizkaia Irratia. | FM 102.6 | Irulegi Irratia. | FM 93.1 |
| Egin Irratia. | FM 103.0 | Segura Irratia. | FM 89.2 |
| Euskadi Irratia. | OM 1.161 | Xiberoko Botza. | FM 98.6 |
| Euskalerria Irratia. | FM 91.0 | Xorroxin Irratia. | FM 107.5 |
| Gipuzkoa Herri Irrat. | FM 99.8 | Zintzilik Irratia. | FM 101 |

**Euskadi Irratia.** 10.00etan bertsozaleentzat, 'Bertsoz Bertso' irratsaioan, Orion 1971ko arrantzale egunean ikastolaren alde egin zen bertso saioko bertsoak izango dira entzungai. Ondoren, 11.00etatik 12.00etara, 'Auspo zahar soinu berri' irratsaioan, Andoni Etxezarreta eta Juan Ramon Hurbe trikitilariak arituko dira estudioetatik zuzenean.

**Arrate Irratia.** Gaur, musikazale amorratuentzako irratsaioak ditugu aipagai. Goizeko 10.00etan euskal musikazaleentzat, trikitilari, txistulari eta bertsolariak, besteak beste, 'Erriko plazan' irratsaioan. Eta, arratsaldeko bostetatik zazpiak arte musikaldi atsegina.

**Segura Irratia.** Goizeko 10.00etatik 11.00etara 'Altza eta dantza' trikitixa irratsaioa. Eguerdiko ordu batean kirol albisteen emanaldia. 13.30etan 'Eskaintitako' doinu eta abestien saioa. Arratsaldeko lauetatik aurrera 'Arratsalde pasa' irratsaioa, entzuleen partaidetzarekin, berri interesgarriak tartekatuz.

**Xorroxin irratia.** 11.00etan 'Egunon', 11.10etan egunkarien titularrak, 11.20etan 'Merkatu txikia', 11.30etan eskaintzak, 11.45etan lehiaketa, 12.15etan errezetak, 12.30etan herriko hizkuntzak, 13.00etan herririk herri korrespontsalen berriak, 13.30etan eguneroko gaia eta 13.45etan Haurrekin jolasak.